

Bilboko Udaletxeko langileen euskalduntze prozesua

Bilboko Udaleko Giza Baliabideen Saileko Barruko Trebakuntza eta Komunikazioko Negoziatua eta Euskara, Gazteria eta Kirol Saileko Euskara Zuzendariordetza dira langileen euskalduntze prozesuaren egiteko guztien arduradunak.

Euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 dekretuan zehazten da erakunde bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean, derrigorrez bete beharreko indizeak ezarriko duela zein den derrigorrezko eskakizunen portzentaia; lanpostu-kopuru osoa aintzat hartuta, zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta derrigorrezko hizkuntz eskakizuna.

2001eko zentsuko datuen arabera, Bilboko Udaleko %28,8 lanpostuk derrigorrezko hizkuntza eskakizuna izan behar zuten.

Kopuru hori ateratzeko eragiketa: Euskaldunak + (ia euskaldunak/2).


Indize hori hasi egingo da bilbotar euskaldun eta ia euskaldunen kopurua hasten den heinean.

- 1992tik 2012ra arteko datuak

		1992	2002	2012
Derrigortasun indizea		19,28%	26,04%	28,80%
Derrigorrezkoak		497	609	688
Ez derrigorrezkoak		2.082	1.729	1.700
Derrigortasuna BAI dutenak	Egiaztatuta	53	400	792
	1 gutxiago	34	50	28
	Adina	56	56	43
	Hutsik	29	78	44
	EZ	351	56	9
Derrigortasuna EZ dutenak	Egiaztatuta	0	116	214
	1 gutxiago	0	116	191

GUZTIRA	Egiaztatuta	53	516	1006
	1 gutxiago	34	166	219

- Hizkuntza-eskakizunen egiaztatze maila



Adierazleak:

- **Egiaztatuta:** lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duen langile kopurua.
- **Ez egiaztatuta:** lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duen langile kopurua
- **1 gutxiago:** lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna baino bat gutxiago egiaztatuta duen langile kopurua
- **Adina:** adina dela eta salbuetsita dagoen langile kopurua (plangintzaldia hasi zenean 45 urtetik gora zituzten langileak).
- **Hutsik:** neurketa egin den momentuan hutsik egon den lanpostu kopurua (harik eta lanpostu horiek bete arte, langile perfildunek okupatzen dituzte lanpostu horiek).

2012 urtean, derrigorrezkoak eta ez derrigorrezkoak diren lanpostuen hizkuntza eskakizuna aintzat hartuta, esan daiteke lanpostu guztietatik **% 42**ak (1006 langilek) dagokien hizkuntza eskakizuna gaindituta dutela.